

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Standard & Poor's agentziak Nafarroaren kalifikazioa igo du

Finantza-fidagarritasunaren "A –" kalifikazioa jarri dio; hala, Foru Komunitatea Espainia baino bi maila gorago dago

Viernes, 13 de junio de 2014

Standard & Poor's (S&P) kalifikazio-agentziak ostiral honetan iragarri du Nafarroaren kalifikazioa "BBB+"tik "A –"era aldatuko duela. Agentziaren arabera, kalifikazio horren arabera "Nafarroak gaitasun handia du finantza-konpromisoak betetzeko"; hala ere, haren ustez ekonomia oraindik gaitzikorra da baldintza ekonomiko txarretan eta egoera-aldaketetan".



Nafarroako Jauregia

Hortaz, Foru Komunitatearen kualifikazioa Espainiak lortutakoa baino bi maila goragokoa da. Espainiarena ere hobetu egin da, "BBB/A-2" lortu du berriki.

Txostenean, S&Pk dio Nafarroak alde horri euts diezaiokeela "esportatzailea delako" eta industria lehiakorra eta dibertsifikatua duelako. Horrez gain, Foru Komunitateak izan duen "finantza-kudeaketaren historia ona" eta "kreditu-kultura indartsua" ere nabarmendu ditu. Azkenik, Nafarroan konstituzioko egoera bereziaren kudeaketak eta zerga-autonomiak duen eragin positiboa baloratu ditu S&Pk.

Nafarroako Gobernuak gogorarazi du Nafarroak estatu osoarekin duen aldeari eusteak aukera ematen diola Foru Komunitateari kreditu-merkatuetara sartzeko baldintza hobekoak lortzeko.